



Autoaren pneumatikoak **bir**kautxuztatu<sup>1</sup> behar ditut.



**1) birkautxuztatu = berriro kautxuztatu = berriro kautxuz estali.**



ber-/bir-

Noiz bata eta noiz bestea?



# ● ber-

Aurrizkia hartzen duen hitza bokalez hasten bada, *ber-* forma erabiltzen da.

# ● ber-

berrabiatu

berragertu

berraipatu

berrantolaketa

...

berredizio

berregin

berreraiki

berrerosi

berridatzi

berrikusi

berrirakurketa

berronetsi

Salbuespenak: ***birraitona, birramona, birresku.***



# ● ber-

- Beste **berrikuspen** batzuek helburu mugatuagoak izan dituzte.
- Hiriko espazioa **berrantolatzea** izaten da udal-plangintzaren egitekorik korapilatsuenetako bat.
- Dena dela, hirigintza-jardunak erabakitasunez ekin behar dio gainbalioak **berreskuratzeari**.



# ● bir-

Aurrizkia hartzen duen hitza kontsonantez hasten bada, **bir-** forma erabiltzen da.




# bir-

bir**b**anaketabir**k**alibratubir**s**aldubir**b**erotubir**k**alifikatubir**s**intetizatubir**g**aitubir**l**andatubir**s**ortubir**g**izarteratubir**p**entsatu

...

bir**j**osibir**s**ailkatu

Salbuespenak: **berpiztu** eta aditz horretatik etorritako hitz guztiak.



# ● bir-

- Aipatutako lursail-eskualdatzea egiten ez bada, **birpartzelazioa** izango da juntaren eginkizuna.
- Hondakinak **birziklatzeko** kanpaina abian jarri du udalak.
- **Birmoldaketa** sakona jasaten ari da.